

ZENBAT BURU

Aitzol Arriola

ERREPORTAJEA

Lehengo eta oraingo  
gau giroa

# BORREN

1999ko azaroaren 12a  
VII. urtea - 298. zkia

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A

GEHIGARRIA

I(ale zuloatik  
baserrira

BERBETAN

Ovidio Campello,  
PSE-EEko zinegotzia

K1ROLA

Zarta Elgoibarko  
Arkulari Elkarte  
sortu da

KULTURA

Soziedad Alkoholika  
taldearen kontzertua



# Zapatu gauetako martxa Elgoibarren

"Gauen parranda goizean logura" Esaera zaharra

**ANTOLATZAILEAK:** AZKENA DANTZALEKUA • IRIONDO TABERNA KAROBI TABERNA  
KARTUTXO TABERNA • LANBROA TABERNA LOJANTZI TABERNA MALAPE TABERNA  
ORAIKO TABERNA • PILON BURGER-A • TIRO-RIRO TABERNA-TXARRIDUNA JATETXEA  
TXURI-BELTZ TABERNA- UDABERRI TABERNA **LAGUNTZAILEA:** ELGOIBARKO UDALA

Azaroak 13, larunbata • gaueko 22:30ean

# Ikastolako frontoian

eo lipin  
**t** **M**


Sl&or reorapta

Cpia, ☾



# PARASITE





AITZOL ARRIOLA

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagu inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

## Baloi santua

**G**aure eguneko gure gizarte honek, badu bere neurrirako erlijio berri bat. Baloi bat kurutzetzat duen futbol santua.

Zaletuok hamabostean behin joaten gara mezetara. Batzuek San Mameseko katedralera eta besteok Anoetako tenplura. Batzuek arratsalde pasa eta beste batzuek barneko pekatuak askatzera. Benetako fededunek, berriz, urtean behin peregrinazioa santua egiten dute derbi egunean. Bilibora edo Donostiara.

Neurri askotako fededunak ditu gure erlijio honek. Badira denbora pasako eta badaezpadako fededunak, inoiz zerua heltzen bada prest daudenak. Beste batzuen fedea, berriz, sakonagoa da eta beraien santuren bat iraintzen duen edonori guda santua aldarrikatzeko prest daude.

Aspaldi honetan txuri-urdira ordenak fede krisi sakon bat jasan du. Inpernuko ateak hurbildu dira eta aita santuak apezpiku berri bat izendatu du. Baina apezpiku berri hau, elizgizon zuri-gorri garrantzitsu bat izana da. Honek, Anoetako jarraitzaile batzuen artean haserrea sortu du. Baina ez dirudi zismarik egongo denik momentuz.

XX. mendeko erlijio hau gizarte maila, politika, kultur eta ideologi guztien gainetik dago. Ezkerreko eta eskubiko jendea, skin head eta pijokumeak, zahar eta gazteak; era guztitako fededunak ditu. Baina bakoitzak bere erara interpretatzen ditu mandamentu eta dogmak. Ateoak ere badaude noski, baina askok zeruko kanpaiak entzuten direnean fedea berreskuratzen dute.

Batzuek negozio handi bat dela diote. Telebista, prentsa, futbolari tratalari eta inguruko jauntxoek antolaturiko milaka miloiko negozio bat. Marketing artean bilduriko sasi jainkoak saltzen dizkigute gau eta egunez. Zeharo harrapatu gaituzte gainera. Zerua beti izan da salgai erraza.


Gauzak ongi doazkie goi mailako elizabarruti eta elizgizonei. Baina bitartean, gure HAUNDIaren elizabarruti xumean, ehunen bat benetako sinisdun besterik ez dira gelditzen. Deabrua dabil bueltaka Mintxeta aldean.

Orain hiru urte sinisdun peto-peto ziren etako askok, fedea galdu dute nonbait.

Bitartean, astelehena pasatzen laguntzen digun fede berri honekin jarraitu beharko dugu. Eta ea larunbatean zortzi, Madrilgo tenplu zurian zeruko izpi txuri urdinak nagusitzen diren. AMEN.

**"Zaletuok hamabostean behin joaten gara mezetara. Batzuek San Mameseko katedralera eta besteok Anoetako tenplura. Batzuek arratsalde pasa eta beste batmek barneko pekatuak askallepa.**

## Barrak, Birrak eta Barreak



# BaRREN



Nafarroa enparantza, 2  
**20870 ELGOIBAR**  
**943 74 41 12**  
Publizitatea:  
**943 74 37 04**  
Faxa: **943 74 37 04**

Emaila: [barren@topagunea.com](mailto:barren@topagunea.com)

Helbide informatikoa:  
[www.ihardun.com/barren](http://www.ihardun.com/barren)

ARGITARATZAILEA	Elgoibarko Izarra
LAGUNTZAILEA	Elgoibarko Udala
KAZETARIAK	Ion Eugi, Asier Orbea
PUBUZITATEA	Maltarte Cid
MAKETATZAILEA	Bea Ansola
ADMINISTRAZIOA	Amaia Martin
GERENTZIA	Rafa Alvarez, M. Angeles Ortuoste.
KOLABORATZAILEAK	Ainhoa Andonegi, Aitor Argarate, Idoia Arozena, Aitzol Arriola, Martin Dominguez, Jon Eugi, Juanito Gorostiza, Arnaitz Gorriti, Ion Gurrutxaga, KOKOE, Imanol Larrañaga, Aintzane Larrea, Ion Loiola, Ongarri Zine Kluba, Iñigo Otaño, Jon Peli Uriguen, Iban Urizar, Amaia Urzelai, Maite Vallejo, Lourdes Zubiaurre.
AZALEKO ESALDIA	Gotzon Garateren liburutik
BANAKETA ARDURADUNA	Imanol Larrañaga
1NPRIMATEGIA	Gertu Koop, E.
TIRADA	4.000 ale
LEGE GORDAILUA	SS-1.038/92
ISSN	1139-1855

*Elgoibarko Udalak, Eusko  
Jaurlaritzako Kultura*



*gizarte-ekintza  
obra social*

**4 DANOBAT**

GRUPO DANOBAT

## ↑EUSkarEPO qaER18<sup>1</sup>. Azaroall 7=211 Ermuan gekialdla

Euskararen alde, denok Ermuara

‘Euskal Herrian Euskaraz’ en 20. urtemuga dela eta, ‘Euskararen Tunela’ izeneko karpa erraldoia dabil eskualdez eskualde. Datorren astean, Ermuako S.Pelayo plazan izango dugu ikusgai, Deba Barreneko eskualdeari baitagokio antolatzea. Bertan, euskal zibilizazioaren historia, euskarak jasan dituen erasoak, orain arte hainbat talde euskaltzalek egindako lan eskerga eta ‘Bai Euskarari’ kanpaina ikusi ahal izango ditugu lau gune ezberdinetan.

Era berean, **erakusketak** (hilaren 17tik 21era), **hitzaldiak** (astewzkenean, ostegunean eta ostiralean), **herri afaria, erromeria eta kontzertuak** (ostiralean), eta **pailazoak** (igandean) izango dira.

Euskararen aldeko borroka luzeak badu oraindik ere erronkarik bere aurrean, guztion artean lortu behar baitugu herri zahar hau euskalduntzea. Hala ez bada, urte batzu barru beste nonbait biziko gara baina ez Euskal Herrian, Euskal Herria izango bada euskaldun izan behar duelako edo ez da izango.

Horregatik ‘Euskal Herrian Euskaraz’ ek euskararen ofizialtasuna derrigortzekotzat jotzen du Euskal Herri osoan, Atturitik Ebroraino eta Enkarterrietatik Zangotzaraino, hau baita bide bakarra euskaldunon hizkuntz eskubideak bermatuak izan daitezten.

Era berean, euskaldunduko duten eskolak eskatzen ditugu, Administrazioa, Justizia, Osasungintza, Komunikabideak etab-en euskalduntzea eskatzen dugun bezalaxe.

Ez dezagun pentsa Elgoibarren egoerak aurrera egin badu ere, Euskara gorra doanik, Barakaldon, Tuteran, Gasteizen edo Baigorri gure herkieen eskubideak zapaltzen badituzte. Horregatik euskaltzale guztioi Ermuarako gonbidapena luzatzen dizuegu eta hutsik egingo ez duzelakoan, gure eskerrik beroenak zuentzat.

**Elgoibarko**

**‘Euskal Herrian Euskaraz’**

## Eskerrikash Eigoibarke herritarrei

**B**ARRENEko Merkatu Txikia atalean Gaztetxerako butakak eskatu genituenetik, dextetetan deitu gaituzue etxean botatzeko edo soberan zentituzten altzarien bila joateko. Hauekin eta emandako besaulkiekin poliki-poliki txoko erosoak prestatzen ari gara eta dena zuen laguntzari esker. Laster denontzat izango den egongela haundi bat prestatzea da gure asmoa.

Irakurle goaren erantzunak asko poztu gaitu eta etxeetan soberan aurki ahal ditzakezuen kortina, kuxin, apal, maindire, ohial etab.ak ere oso gustora hartuko genituzkeela jakinarazi nahi dizuegu. Aurrerantzean ditugun proiektu berriei aurre egiteko oso ondo etorriko zaizkigu-eta.

Aurrez, esker mila.

Elgoibarko Gazte Asanblada

BARRENEk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zenbakia**.

# BAI, E2LI\Ma?



**Andoni Egaña**

Kutxako langilea

Europako Banku Zentralak interes tipoak %2'5etik %3ra igo ditu inflazioari aurre egiteko. Dimaren prezioaren puntu erdiko igoera honek, etxeak erosteko hipoteken prezioak garestituko ditu. Neurri honek, hipotekak ordaintzen ari diren elgoibartar askorengan izango du eragina. Beraz, interesgarria iruditu zaigu azalpen edo argibide batzuk eskaintzea. Horretarako, **Andoni Egaña, Kutxako langilearekin** hitz egin dugu.

## **Zein izan da interes tipoak altxatzeko arrazoia?**

- Eskariaren igoera dela eta, Europar ekonomia oso azkar hazten ari da. Prezioak bere horretan mantentzea zaila da, eta inflazioa agertzeko egoera aproposena da. Inflazioa kontrolatzeko neurririk erabilienean, beniz, interes tipoak altxatzea izaten da.

## **- Kreditu hipotekarioak ordaintzen ari diren elgoibartarrek, zertan igarriko dute?**

Interes aldakorrek mailegu edo prestamuak eskatuak dituztenak izango dira kaltetuenak, azken urteotan probetxurik gehien atera dutenak, bestalde. Hala ere, maileguaren iraupenaren eta kostuaren arabera izango da eragina, %0'5eko igoera hau askok pentsa zezaketena baino baxuagoa izango baita. Bestalde, kalte gutxien, Elgoibarren eraikiko diren babes ofizialeko (ETXEBIDE) etxeen jabeek jasango dute. Izan ere, Eusko Jaurlaritzaren eta Kutxaren artean sinatutako hitzarmen batek arautuko ditu maileguok.

## **- Zein dira desabantaillak:**

-Maileguak garestitzea eta enpresen finantza-gastuak handitzea.

## **Eta abantailak:**

-Errenta finkoko (zor publikoko) inbertsioen errentagarritasuna.

-Erosteko ahalmena mantentzea, inflazioa kontrolatzen bada.

-Familiak gehiago aurreztuko dute

-Etxebizitzaren prezioen gehiegizko garestitzea geldieraz dezake.

## **Euroaren etorrerak izan al du zerikusirik?**

- Euroaren sarrerak asko jaitsi ditu interes tipoak. Duela 5 urte inork gutxi sinistuko luke egun ditugun interes tipo baxuak izatera iritsiko ginenik. Gaur egun horrelako erabakiak Europako banku Zentralak hartzen ditu. Hori dela eta, gurea moduko herrialde inflazionista batek eskuak lotuago ditu diru politikari dagozkion erabakiak hartzeko.



• San Pedro kaleko bizilagun batek honako keza hau bidati digu: "Melitongo **zubi-tik behera bizi garenok ez daukagu telefono kabina publikorik**. Badakit herri erditik nahiko urrun bizi garela baina besteek adina eskubide ditugula uste dut. Bada ordua telefono kabina bat jartzeko".



• **Herritar bat kaleak urez garbitzeak sor ditzakeen arriskuez kexatzeko etorri zaigu: "kaleak urez garbitzea beharrezkoa da herria txukun mantentzeko, baina neurrian egin beharreko lana dela uste dut**. Azken egunotan adibidez, euri asko egin du, eta hala ere, kaleak urez garbitu dituzte. Garbiketek lurra oso labainkor eta potzuz beteta lagatzen dute. Gainera, hotzarekin labaindu eta jausteko arriskua handitu egiten da. Premia dagoenean bakarrik garbitu beharko lituzketela uste dut, beste arrazoirik ez badago behintzat".

## **IL URTEURRENA**

*1997ko azaroaren 14an, 58 urte zituela hil zen*

*JULIAN ETXEBERRIaren oroimenez*

*IL URTEURRENEKO MEZA izango da Santa Klaran igandean, hilaren 14an, goizeko 9:30etan. faaten zaretanoi eskerrak alde zurretik.*





# martxa

# Elgoibarren



4ipath d<sub>k</sub>otenet ademnetah, o4,IPzaietah  
 eta iammhateladd Pdelgeh rAen ela  
 ,ad,eah itakamik. "Gdegdsh ela cutmaieta  
 dhantzia oin<sub>q</sub>o lihudiatetalaha airda patehtiaua  
 i9atedt <laemak isteha 34date9iaak  
 Getetrd rtzueh. ,Ilomeqadaik, iehmaa  
 qi«al4 danak; /whida hdosedtca eglouahlw-  
 va pamahda4a, qao, iakm.  
 altads dao, ddak haidda gerushe talienga God  
 l6illi4h8 oduz(ci 4atah, wilza 4alau cga".

90-4141144144d41

riuda 10 dutie hadi  
 "kkalaa" ouddikwieh maizada, Odutik daGed-  
 te erz ehtlateh lapath radelah, hahi, eta pidha-  
 haloa iodwiza 94/9 am: de41. .Lgilen ourai-  
 ha miziaya egipdeo eia ouraiza  
 Ia Gateah rfaela aipatu 4hte lademaiudz. ".2e-  
 heh husiikiah **plait** aht ciahag 1,esteko yamah-  
 .Oduk. TaGe/ura 4.4 iamh e4e 9,144edt &CP/4 eta  
 lAeste aildietard kca alpeiv2i4 rmao, adha  
 aidattt dk<sub>z</sub> takihia hwith e,te ics leihe  
 konk/ze,th holakok da dekula erdaltd  
 elyadiameh". Beijalde, ada altu h dhte ou41-  
 kaia tal~a "Iehev eda Geria, jendia  
 taia iidetrh da Nata (Wen Fula Zahavia  
 kahe174a" eta "a tope"pada/ia da. Qat,e  
 inhanizik biletie# ahda a<sub>vi</sub>~a hala



1.15~14 .20-25 ardeha 9aueha  
 madaa ada dedlia4diaa yea.

Oderiogelaiza eta culAaletaha

g<sup>444</sup> g<sup>1444</sup>, eri<sup>4</sup>m<sup>9</sup> l<sup>af</sup>24141  
 9~121104440 rustimaitoa 9430",

cijoih dala-eta, daha edarnadda itZe41 daGe;  
 Itaztgeh eda edateh dcJeha, dohdidzia elYzildha  
 «ah eta Zoladhen hadduakdh,..

94 ~~X~~ ailigas

741hoitala Szo9ozi: 41(449 dimienet  
 "eolkal alle4 — agan zy<sup>a4</sup> adha, 1)4i  
 a ela 4ai g<sup>74</sup>eaact€~ aida ccd pidiza  
 al/494 9agliek ruzilaalz eArdest dit/cue cginu  
 9'414i da4alar4 alhainao

9,41ao lagi444 da aaiwia lekka /4haq."  
 .14aqak 4di erfapt le4e4x heitaMa. ras  
 amidiudAuella e<sub>c</sub>uo dUthusgiza ct2o9ah  
 cieizaihaizeki« ododhah, wde Gatrzh, hviaadt-  
 duayo jaiDinyo cia<sub>ft</sub> dia41 kalle-  
 9~44". eldud ioerta cA4W24'1« Gcd wu cida  
 na~ 04:pat« d<sub>k</sub>uie, "5 eda 16 wiieiza  
 900ek dr>as  
 e,lo.d.teh datte alkalsala eta aihamaça hdolloo4-  
 trid dka. allagehdh Upoze dal2e ka144aka ma-  
 Wiwziaah eta tal,e4ddek kalte itahdiah imaten  
 difauela, iehen e9 1,ah l-elakaidk qedatleh,  
 eta iluddiehha i9ateh tipliwiil2a Weiusa  
 cd/i,tsh ,aizer4 malawa Gc.t da  
 del~akk ia/vd eta ie9,ixd~  
 alawdieh ditaee-ela",

41<sup>114</sup>/ Pgeca<sup>9</sup>c'd9<sup>4</sup>T' ei:KOe a —<sup>4</sup>  
 wu hza. 2eiwaya eda cucdnça yApc.isie,frica  
 9<%Joa. 9e4 ha4ea?. .ledte4chitak yijzda  
 da9a, Zama zaide4a iszovien e)zajtiddha ha)zlie-  
 oaAeh e4.1lu daga

AUTOBUSEAN eta HEGAZKINETAN ERRETZEA  
DEBEKATZEN DUEN LEGEA ONARTU DA.

# lindn ISusten al titizu let{ ull:rikoetan erreizekD debektia?



**GABRIEL RUIZ**  
68 urte, jubilatua

Oso ondo, eta kalean ere debekatuko balute hobea. Autobusean doanari albokoak erretzeak kalte egiten dio. Guri ere Zaharren Egoitzan berdina gertatzen zaigu.



**GLORIA MATEOS**  
47 urte, sukaldaria

Ondo ikusten dut. Ez nau izorratzen erabakiak bidaiatzera-koan ez dudalako erretzen, ezta bidaia luzeetan ere. Beste erretzaileek eduki ditzakete haserre egoteko motiboak.




**CARLOS VAZQUEZ**  
18 urte, margolaria

Primeran ikusten dut, keak kalte egiten dion jendea dago-eta. Leku itxi batean, kea pilatu egiten da. Leku publikoetan erretzea debekatu beharko lukete.



**JUAN MUÑOZ**  
54 urte, fresadore

Oso ongi iruditzen zait, baldin eta betetzen bada. Niretzat dator ondo, erretzaile amorratua bainaiz. Erretzaile batzuk haserretuko dira erabakia dela-eta, baina ni ez.




**ROBERTO MERINO**  
47 urte, garbitzailea

Ongi iruditzen zait, nik ez daukat haserretzeko motiborik, lagatzeko desiatzen nago-eta. Ez nau izorratzen erabakiak, kontrakoa baizik, gustuko dut.



**MATILDE DEL CAMPO**  
38 urte, etxekoandrea

Oso ongi ikusten dut. Hala ere, leku hauetan, erretzaile-entzako tokiak eta erretzaileak ez direnentzako tokiak egon beharko lirakeke, denek eskubideak errespetatuz.



[11MH 31deo

*Eedeo, atolaiim  
emtelo, 24 attdadm*

**berria!**

Leku Ederreko parkean  
Tel. 943 74 15 85



# ISPILUARI DEGIRA



Lelisu2.1svl

Estazio tabernakoa

**-Zein herritako estazio ondoan bizi nahi zenuke?**

- Elgoibarren gustura bizi naiz.

**-Zein urtaro duzu gustukoan?**

- Udaberrixa, argitxasun asko dakan urtarua datako.

**-Bizitza zoriontsua izateko `menua'?**

- Osasuna, alaitasuna eta diru piska bat.

**-Zein da etxeko espezialitatea?**

- Makiillaua edozein erataru, rebueltuak eta amak itxen ditxun etxeko tartak.

**-Pintxorik gogokoena?- Patata tortila pintxoia.**

**-Bapo jan ondoren kontzientzia txarrik bai?**

- Noizian behin prakak jazterakuan, baina normalian ez.

**-Sekula probatuko ez zenukeen janari bat?**

- Baba beltzek ez die grazia gehixegi itxen, baina ostantzian danetik jaten dot.

**-Mahaian sekula falta ezin dena?**

Ardua eta ogixa, Argiñanok pelikula batian esaten zaban moduan.

**-Unai, afari on batekin konkistatu al daiteke emakume baten bihotza?-** Bai, afarixakin, konbersasivakin eta postriakin.

**-Harreman sendo bat mantentzeko `errezeta'?**

- Zintotasuna eta errespetua, baina ez hitzezkuak bakarrik.

**-Bezero batek sopan euli bat dagoela esango balizu?**

- Ez jata inoiz pasau, baina tokau ezkeru barkamena eskauko nioke.

**-Zein eratako `saltsak' gustatzen zaizkizu?**

Era guztixetakuak, danetik probau bida.

**-Herriko berri asko jakiten al da barra atzetik?**

- Norbera irekixa izan ezkeru bai. Bezeruen arabera ere bada, klase guztixetakuak daoze-eta.

**-Zein da taberna baten lan egitearen alderik onena?**

- Jendiakin dakazun tratua.

**-Mozkorrak uxatzeko erremedio bat?**

Pazientzia handixa eta askotan "bista gorda" itxia.

**-Eta ajea kentzeko? - Erremedixo bakarra, juerga handirik ez itxia eta neurrixan eratia da.**

**-Juegarako musika?**

Edozein, baina batez ere euskal musikia.

**-Zer gustatuko litzaizuke ospatzea topa eginez?**

- Realak ligia irabazi dabala adibidez.

**-Tabernan lanean ez zaudenean nora joaten zara?**

- Lagunekin edo neskiakin buelta bat ematera.

**-Zein da zure anbizioa? Eta bizioa?**

- Anbiziva negoziava martxa onian jutia. Biziorik, berriz, ez dakat.

**-Afiziorik?**

- Futbola, esku pilota eta zinera jutia gustatzen jataz.



**wInHosta**

Errosario, 30  
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- \* IDAZMAKINEN SALMENTA eta KONPONKETA
- \* MULTIKOPISTAK
- \* FOTOKOPIADORAK
- \* PLANOEN BIRREGILEAK
- \* ERLOJU INDUSTRIALAK
- \* MARRAZKETA MATERIALA
- \* INFORMATIKA
- \* FAX-a



**karkizano**

San Frantzisko, 14 Tel 943 74 05 49



Arrieta  
San Bartolome, 18  
Tel. 943 74 08 49

# 11 Ilaritz Euskal Doolio 11911 Dlooa M1 Elgolbarlto dantil Ouruzko kanigatuito du InEilarE hutsen

4 milioi pezetako aurrekontua erdibana ordainduko dute Udalak eta *Danobat-ek*

**kritz Dantzari taldeak** Elgoibarko dantza tradizioari buruzko liburua kaleratuko du. Duela lau mendetik hona gure herriko dantzen berri emango du liburuak euskara hutsean. Proiektu honen aurrekontua 4.000.000 pezetakoa da eta erdi bana finantzatuko da Udaleko Kultura Saila eta *Danobat*, Makina Erramintako enpresaren artean. Bakoitzak 2.000.000 pezeta inguru emango ditu eta horri esker, liburuaren 1500 ale argitaratuko dira. Ale guzti horietatik, 1.000 babesleentzat izango dira eta beste 500 *Haritz Dantzari Taldearen* esku geldituko dira. Elkarte honek ale bakoitza, 300 orrialde inguru edukiko dituena 180 argazkari-ekin batera, 2.000 pezeta inguruko prezioan salduko du.

Liburu honen argitarapena, *Haritz Dantzari Taldea* egiten ari den lanaren



*Liburuak azken Iau mendeetako Elgoibarko dantza tradizioa aztertuko du.*

beste adibide bat da. Izan ere, ez da makala talde hau egiten ari den ahalegina lehengo euskal dantzak berreskuratzen eta bizirik mantentzen. Ahalegin horren fruitua da, azken urte hauetan San Bartolome egunean 'Soka-dantza'k, elgoibartar jatorriko dantza honek, daukan berpiztea,

XVI. mendetik honazko Elgoibarko dantza tradizionalei buruzko liburu hau, gure herriko tradizioa eta historia berreskuratzeke politikaren barnean kokatzen da. Horrela, azken urtetan, ia dozena bat liburu plazaratu dira Elgoibarko historia, kultura edo etnografia ardatz dutenak, gutxi gora-behera urteko liburu bat. Tartean daude gai hauek aztertu dituzten Koldo Lizarralde edo Pello Arrietaren liburuak.

## • **Haizea Emakume Taldea-ren ostfraleke bidee forum-a bertan behera gelditu da**

*Haizea Emakume Taldeak* bideoforumua antolaturik zeukan ostiral honetarako. Baina, ekitaldiak, Errota-txok antolaturiko antzerki emanaldiaren ordu berean zenez, Haizeakoek bertan behera lagatzea erabaki dute "Mas fuerte que su destino" filmearen emanaldia eta hizketaldia. Hala ere, prestaturik duten hurrengo bere horretan mantenduko da, hortaz, hilaren 26an, Kultur Etxean, 'Moll Flanders' pelikula emango dute eta jarraian solasaldia izango da Eskarne Larrinaga terapeuta eta sexologoarekin.

## igerileku handia zahaiik lago obre amaltu oVeau

Bazkideek abenduan zenbait zerbitzu doan edukiko dituzte atzerapenagatik

**O**laizaga kiroldegiko igerileku handia aste honetan zabaldu dute, sabaiaren konpontze lanak uste baino gehiago luzatu ostean. Hasiera batean, igerilekua irailean zabaltzekoa zen aren, sabaiak matxura handiagoa zuela-eta, egitura osoa konpondu behar izan zen. Horrez gain, enpresarekin arazoak izan ziren eta beste enpresa bati eman behar izan zitzaion konponketa-aren ardura. Azkenik, behin teiltua behar bezala jarrita, igerileku handia herritarrek erabiltzeko moduan dago. Orain, igerileku nagusia zabalik dela, igerileku txikiko sabai konpontzen segituko dute eta atzerapenik ez bada, datorren astean irekiko dute.

Igerilekua erabiltzeko ordutegia honakoa da: astegunetan, 07:00etatik 21:00etara. Larunbatetan, 08:00etatik 14:00etara eta



*Azkenik erabiltzeko moduan dago igerileku handia eta txilcia datorren astean zabaltzea espero dute arduradunek.*

16:00etatik 19:30era. Igandetan, 10:00etatik 14:00etara.

Atzerapenak sortu dituen eragozpenak direla-eta, Patronatuak zera erabaki du: abenduan bazkideek sauna, hidromasaia, Squasch eta tenis pista dohain erabili ahal izatea.

## Edu Arrllagak CaM Madrid basketxearen argazki sariketan ohorezko almmena jaso du

Eduardo Arrillaga argazkilari elgoibartarrak Caja Madrid basketxearen Estatuko II. Argazki sariketan ohorezko aipamena jaso du. Saria, *Veteranos Sin*

*Fronteras* (VSE) Gobernuz Kanpoko Erakundeak Guatemalan eta Bolivian egindako lanari buruz ateratako argazki batzuei esker Iortu du Eduk. 134 argazkilari hartu zuten parte txapelketan eta epaimahaiak 800 argazkiren artean aukeratu behar izan zituen irabazleak. Epaimahaiak ohorezko hiru aipamen egin zituen eta lehenengoa elgoibartarrarentzat izan zen.



## Arnaldo Otegi gose greban dago presoen aldarrikapenekin bat egiteko

Arnaldo Otegi, *Euskal Herritarrok* alderdiko legebiltzarkideak, bere alderdiko beste 4 legebiltzarkiderekin batera, gose greba hasi zuen pasa den astelehenean Gasteizko Legebiltzarrean, euskal preso politikoen borrokarekin bat egiteko. Izan ere, 20 euskal preso gose greban daude azaroaren 1 az geroztik Euskal Herriko bake prozesuan parte hartzeko eskubidea aldarrikatzeko. EH-ko Gasteizko Legebiltzarreko bost legebiltzarkideek larunbata arte eutsiko diote gose greba honi. Arrazoi beragatik, joan zen ostira-lean, 150 ikasle inguru heniko kaleetan zehar manifestazioan joan ziren. *Mekanikako* eta *IMHko* ikasleek eskolak eten zituzten egun horretan eta kalera atera ziren. Ondoren, Txankakuan errepidea moztu zuten lurrean jarrita. Protesta ekintza minutu batzuk pasatu ostean bukatu zen, inolako istilurik gabe eta ikasleak klaseetara bueltatu ziren.

## • Mendarako KIABARREN gehigarriko kolaboratzaileak behar dira

BARREN astekariko KiliBARREN gehigarria lantzeko kolaboratzaileak behar dira. Orain artean aritu direnek laga egingo dutela-eta, haiek ordezkatzeko pertsonak behar dira datorren urteko urtarriletik aurrera. Beraz, hamar egun baino lehen, interesa daukanak Mendaroko Kultur Etxera jo dezake edo telefono honetara deitu: 943 75 61 00. Bestalde, Mendaroko Udaleko Euskara Batzordeak Gabonetako euskarazko V. Ipuin Lehiaketarako deialdia egin du. Hiru kategoria izango dira: a) Mendaroko San Jose Ikastetxeko OHO-ko 5. eta 6. mailetako ikasleentzat, b) Debarroko ikastetxeetako DBH-ko 1. eta 2. mailetako ikasleentzat. d) Debarroko ertain ikastetxeetako ikasleentzat. Idazlanak 1999ko abenduaren 1 Oa baino lehen aurkeztu beharko dira.

## • Gutun Sozialaren Aldeko Plataforma egoihar zeharkatuko duen martxa prestatzen ari da

Pasa den urrian Gutun Sozialaren aldeko plataforma sortu zen Elgoibarren. Plataforma hau, herriko sindikatu, elkar-te eta pertsona ezberdinek osatzen dute. Gutun Sozialaren eskakizuna, 1998an henitarren ekimenez sortutako Lege Proposamena da, gizarte bazterketari aurre egitea eta pertsonentzat oinarriko errenta eskatzen dituen. Aurki Lege Proposamen hori Eusko Legebiltzarrean eztabaidatuko da eta hori dela-eta zenbait ekintza antolatu dira. Horrela, martxa batek Euskal Herria zeharkatuko du, eta tartean, hilaren 20an, Elgoibartik pasatuko da. Herriko plataformako kideak egun horretako ekitaldiak prestatzen ari dira.



## Eskualdeko gaiso eta elbarrituak Elgoibarren elkartuko thra igandean

Igandean, hilaren 14an, Debanoko eskualdeko gaiso eta elbarrituak Elgoibarren elkartuko dira Elgoibarko Osasunaren Pastoralak antolatutako konbiventzian parte hartzeko. Eguerdiko 13,00etan Parrokian meza entzun ondoren, ordu biak aldera lagunarteko bazkaria egingo dute Jubilatuen Etxean egun honetan bertaratuko diren gaixo guztiek.

• **Saharako herriari 385.000 pezetako laguniza emango dio Udalak**

Gobernu Batzordeak, "Oporrak bakean" kanpaina erabili behar zen dirua, zuzenean Saharako herriari ematea erabaki du. Hasiera baten, proiektu honek ume saharar batzuk Elgolbarrera ekartzea zuen helburu, uztailan eta abuztuan benetako oporrak pasa zitzaten gure artean, beraien herrialdeko gatazka ahaztuz. Baina, Elgoibarko Udalarekin zerikusirik ez zuten anazoi ezberdinak tarteko, azkenik ezin izan zuten etorri umeek.

Egoera hala egonik, Udaleko Gizarte Zerbitzuko batzordeak, Gobernu Batzordeari zera proposatzea erabaki zuen: Udalak, Saharako haurrak herrira ekartzeko erabilitako dirua (385.000 pezeta, hain zuzen ere), herrialde honi laguntzeko eramatea. Batzorde honek egindako eskaerak Gobernu Batzordearen baiezkora jaso zuen eta kide guztiek aho batez onartu zuten.

Sahara herrialdea duela urte askotatik borrokan dago Marokoko (Marruecos) Gobernuarekin beraien eskubideen defentsan. Autodeterminazio erreferenduma honez gero eginda egon behar bazen ere, Rabateko Gobernu behin eta berriro atzeratzen ari da.

## Meteijeac, plasnellzo elta Inik-eao tinikilatzeko DonaneatEseaez ijarri Rilankomildwleall

Guztira hori-laranja kolorekol 6

dira herriko leku ezberdinetan

dala ontziak birziklartzeko kontenedoreak **U**jartzen hasi da. Guztira, era honetako 16 kontenedora jarriko dira gure herrian. Kontenedore, hori-laranja koloreko hauetan, metalezko, plastikozko eta brik-eko ontziak bota behar dira. Era honetan, ontzi hauek botatzeko tokia egongo da aurrerantzean, orain artean zegoen egoerari konponbidea jarritz. Proiektu hau, Debarroko Udaletan garatzen ari den plangintza baten banua dago.

Kontenedore berri hauek, lehendik dauden kontenedorei batuko zaizkie. Lehendik daudenak honakoak dira: berde argiak, bidrioa botatzeko; berde ilunak zaborrentzako, horiak piletarako eta kontenedore urdinak, kartoia eta paperak jasotzeko.

Ezingo dira hori-laranja koloreko kontenedore haue-tara ondoko zaborrak bota: kartoizko enbalajeak, botilak eta bidrioizko ontziak, arraultzentzako kartoizko kaxak, aerosolak, jostailuak,



*Hori-laranja koloreko kontenedore hauek lehendik herrian dauden besteek batuko zaizkie.*

elektragai txikiak, pilak, biberioak, gomazko guanteak edo eskularruak, orratziak, hortzak garbitzeko eskubilak edo zepiloak, lapikoak, zartaginak eta antzerakoak. Horrez gain, kontutan eduki behar dira beste zenbait aholku: brika tolestu egin behar da; plastikozko ontziei tapoia kendu behar zaie; ontziak, hutsik eta garbi bota behar dira; ez da on-

tzi bat beste baten barman sartu behar eta azkenik, noski, ez da ezer ere laga behar kontenedoretik kanpo.

Astero egingo da kontenedore hauetara botatuko zaborren bilketa baina erabilpena normalduz doan raturrian, baliteke kopuru hori ugartzea. Jasotako ontziak Legazpira eramango dira eta bertan, zaborra berreskuratzeko lantegi batean landuko dituzte.

## Nerriko turismoa nola hultiatu jakiteko ikerketa lana esla91 dio Udalak Eusko Jainglaritzari

Igoibarko alkatea, Guillermo Garate **E**Mertxe Rodriguez, Eusko Jaurlaritzako Turismo Zuzendariarekin bildu zen joan zen hilaren bukaeran, Elgoibarren turismoa nola bultzatu aztertzeko. Horrela, Eusko Jaurlaritzari ikerketa lan bat egitea eskatu zaio, gure herriak dauzkan aukerak (Makina Herraminta Institutua eta beste) bisitariak ekartzeko nola aprobe-txa daitezkeen ezagutzeko.

Honekin batera, laster eskualdeko Udalen bilera egingo da, Elgoibar tartean dela, inguruetan hotel txiki bat eraikitze-ko inbertsoreekin harremanetan jartzeko. Elgoibarrentzat gai hau oso garrantzitsua

da, izan ere, Makina Herraminta sektorea tarteko, kanpotik bisitari ugari jasotzen du eta ez dagoenez herrian horretarako tokirik, beste herri batzuetara eraman behar izaten dira.

Baita ere, aztertzekoa da Elgoibarko inguruetan, bungalow edo apartamentu batzuetan eraikuntza. Apartamentu hauek, naturan kokatuko lirarteke baina herri-tik hurbil, mendi ibilaldiak oinez edo bizikletan egin ahal izateko aukera emateko. Gai hauei buruz hitz egiteko, honen ardurua hartu duenak, Guillermo Garate alkateak, aurrerik Eusko Jaurlaritzako Turismo-ko tekniko baten bisita jasoko du.

### AGURTZAN E ETXAN IZ

## "Gabonak aurretik hasiko gara baserrixetan sobran dauan plastikua biltzen"

*Hdabete honetan edo beranduena jota, hurrengoan jarriko da martxan Elgoibarren plastikoa biltzeko kanpaina. Kanpaina honekin, belarra batzeko erabiltzen diren plastikoa eta negutegietakoak bilduko dira, ondoren Legazpian berziklatzeko. Guzti horren berri jakiteko, hizketalditxo bat egin dugu Agurtzane Etxanizekin, DEBEMEN-eko arduradunarekin.*

- Lehenengo, hondakin organikoak biltzeko hasi zen, ezta?

- Gipuzkoako Diputazioetik zerbitzu ezberdinak dauzuzuzenduta baserriarrei. Zerbitzu horien artian, hondakin organikoak biltzeko dago. Hori martxan jarri zan oin dala hiru urte pasatu eta purinak eta jasotzen dia. Kamioi zisterna bat dauka Gipuzkoako Mendi Nekazaritza Elkartetik guztien artian subentzionatuta, eta purinak jaso eta zabaltzen dira zelaietan. Zerbitzu hori martxan dago jua daneko hiru Iau urtian.

- Orain, hondakin inorganikoak heldu nahi zaie.

- Aurrez aipatutako horretaz aparte oin hondakin inorganikoen biltzeko martxan jartzia pentsatu da. Horretan plastikuekin hasi behar gara. Base-nitaneke orain arte belarra biltzen duen plastikoa erre in dabe, edo zuloren baten sartu. Diputazioetik, zerbitzu bat ematia pentsatu da horri erantzun bat emateko.

- Aurretik, beste eskualde batzuetan egin da plastikoa biltzeko.

- Azken bi hilabete hauetan, Diputazioak, Ingurugiroko Zuzendaritzak, martxan jarri dau biltzeko hori Gipuzkoako hiru bailaratan: Donostialdean, Tolosaldean eta Urolaldean. Biltzeko hau oso ondo joan danez, Gipuzkoako beste hiru bailaretara zabaltzia pentsatu da: Goiherri aldea, Debarrena eta Debarroa. Debarroan, gure kasuan, lehenengo biltzeko Gabonak baino lehen egingo da, baina ondiok zehaztu gabe dago, azaroan ala abenduan izango dan. Jakiten dogunian baserriarrei abisua pasatuko diegu esanez ze egunetan eta nun laga bihar ditxuen plastikoa hoiek. Gero, kamioi bat pasatuko da eta plastikoa hori jasoko dau hilia behin.

- Zein izango dira biltzetarako lekuak Elgoibarren?

- San Lorentzo bailaran, hasiera baten San Lorentzon bertan, kontenedorak dauden toxikan izango litzake bat eta lehenagoko Azkarateko bide zaha-

rrian ipini nahi dou beste bat, gain aldean, ez dakigu Kurutzeta aldean edo nun izango dan. Gero, Urruzunon, Urruzunon bailarako plastikoa, Urruzunoko sarreran jasoko lirakez, hango bidegurutzean. San Migel auzokoak, beniz, Metal-knan eta San Migel auzuan bertan. San Antolineko auzuan, Poligonu industrialian eta Lizundia baserri inguruan, ze hemen da plastikoa gehixen biltzen dan tokixa Elgoibarren. Eta San Roken, azkenik, Plaza inguruan.

- Zer egingo da bildutako plastikoa?

- Plastikoa hori, jaso ondoren, Adunara eramango da. Adunara enpaketatuta egiten dute eta hortik Legazpira eramango dute, Rimoplast enpresan berziklatzeko. Elgoibarren, egixa esan, ez ditxu jende askok bola hoiek egiten, dakagun orografiatik, malda asko dagoenez, ez da asko egiten. Baina, beti ere plastikoa hori hor dago eta bildu bihar izaten da, erretzia ere kontaminantia baita.

- Ondoren, beste plastikoa batzuk ere bildu nahi dira, ez?

- Belar bolen plastikoa gain, inbernaderoetakua ere jasoko da. Bestela ere plastikoa asko produzitzen da baserrixetan, produktu kirkikoak ontziak, albaiteritzako botiken ontziak... Hori ere arazo bat da eta badakigu hoiek ere jaso in biharko ziala. Baina momentu honetan belar bolen eta inbernaderoen plastikoa hoiek hasiko gara.



DEBEMENeko arduraduna

# Hobekuntza lanetarako diru laguntzak

*DEBEMEN, Debarroko Mendi Nekazaritza Elkarteak 43 milioi pezeta banatuko ditu 2000..urtean Debarroko baserriarren artean.*

*Eskaerak egiteko epea zabalik dago eta 1.999ko abenduaren 30ean bukatuko da. Diru laguntzak jasotzeko, egin beharreko lehen pausoa DEBEMEN elkarteko bulegoetara joatea da (rnerkatu plazako 2. solairuan) edo Elgoibarko Udaleko hirigintza zerbitzura.*

Debemen elkarte Debarroko Mendi Nekazaritza Elkarte da. 1991. urtean sortu zen Debarroko baserriarren bizi kalitatea hobetzeko asmoz. Debemen elkarteak urtero Gipuzkoako Foru Aldunditik diru kopuru bat jasotzen du Debarroko baserrietan egiten diren hobekuntza lanak subentzionatzeko.

Besteak beste, honako hobekuntzak subentzionatzen dira: ur horniketak, baserrietarako bideak, fosa septikoak, nekazal garapen proiektuak, lokal sozialak, baserrietarako seinalizazioa eta abar.

Hala eta guztiz ere, laguntza hauek jaso ahal izateko zenbait baldintza bete behar dituzte eskatzaileek. Alde batetik, eskaera egiten duen pertsonak, dedikazio edo

arreta osoa, edo behintzat partziala eduki behar du baserrian, hau da, baserritik bizi behar dela egiaztatu behar du. Bestalde, nekazal seguritate soziala ("seguridade social agraria") delakoa ordaindu behar du. Hau kontutan izanik, laguntza hauetatik kanpo gelditzen dira txaletak, aste bukatetarako erabiltzen diren baserriak edo gutxieneko dedikazio bat ez duten guztiak.

## Laguntzak jasotzeko pausoak

Aurrez aipaturiko baldintza hauek betetzen dituztenek, lehenengo egin beharrekoa zera dute: Debemen elkarteko bulegoetara joan (Merkatu Plazako 2. solairua) edo bestela, Elgoibarko Udaleko hirigintza zerbitzura. Debemen elkarteko gerentea eta Elgoibarko Udaleko nekazarien zinegotzia obra ikustera joaten dira eta, Debemen elkartetik subentzionatzeko modukoa bada, aurrekontua ekartzen du eskatzaileak. Martxoan Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundia, Nekazal Sindikatu eta Debarroko Udalekin bilera bat egiten da eta onartuz gero, obra hori onartu egiten da. Elgoibarko eskatzaileek, orokorrean Debemen elkartetik aurrekontuaren %55a jasoko dute eta Elgoibarko Udaletik berriz, %45a.

## Ordezkapen zerbitzua

Diputazioak janitako beste zerbitzu batzuen artean ordezkapen zerbitzua dago. Ordezkapen zerbitzu honen baserriarren gaisoaldi edo istripuko bajak bete egiten ditu, eta baita oporroladietako egunak ere. Bajak direnean hilabeteko ordezkapena egiten da eta oporaldiak direnean 15 egunekoa. Zerbitzu hau Diputazio eta Mendi Nekazaritza Elkartearen aldetik subentzionaturik dago, Diputazioak, Nekazaritza Zuzendaritzak %50a ordaintzen du, Mendi Nekazaritza Elkarteak %30a eta gainontzeko %20a baserriarrek berak.

Ordezkapen Zerbitzu hau jaso ahal izateko baserriarrek Nekazal Segurantzaren Soziala ordaintzea beharrezkoa da. Bateren batek premia hau edukiz gero, Debemen-era deitu beharko luke (telefono zenbakia: 943744067). Orain arte zerbitzu hori, Gipuzkoa mailan, bi pertsonen eraman dute, Enelurreko pertsona batek eta baita Lurgintzako beste pertsona batek ere. Baserriarren partetik ordezkapen zerbitzu honen eskaera handia dagoela ikusi da, horregatik Mendi Nekazari Elkartetik beste pertsona bat sartzea pentsatu zen. Hau dela-eta, orain Gipuzkoan hiru pertsona daude zerbitzu hori egiten: Enelurreko bat, Lurgintzako bat eta Mendi Nekazaritza Elkarteko beste bat.



*Diru laguntza hauek jaso nahi dituenak Nekazal Seguritate Soziala ordainduta eduki behar du.*

# IRUNAGA-TXIK1 baserria

*Elgoibartik San Pedrora igo ostean, Aubixarako bidea hartuko dugu. 20 metrora ezkerreko bidea hartu ondoren, topatuko dugun bigarren baserria naga-Txiki izango da. Bertmi bizi da Javier Osoro eta berak eman digu baserri honetako berri.*

Egun Irunaga-Txiki baserrian bizi diren arbasoak Aubixa eta Urkitxa baserrietatik etorri ziren. "Izan leike. Urkitxakua guria, amama zana zan. Hona ezkondu ingo zian, oin dala urte asko. Amama zana hil zala ere 11 urte edo izango dia, eta etorri zala urte asko dia, klaro".

Kanpotik begiratuta, baserriak berri itxura dauka, baina berez zaharra da. "Benixa ez dakit dan. Izatez aspaldikua da. Ez dakit zeinena zan, esaten zaben baina ni ez naiz gogoratzen. Gero, erosi zaben aitxitxa zanak-eta. Urte mordua izango dau, baina igual ez dau ematen, berrituta daualako".

## Ortuko lan gutxi

Ortuan gutxi jarduten dabe baserri honetan. "Gehixena, zelaixa, labraketa etxe onduan dauan pusketa hauxe itxen dou. Gainera, laster laga in bihar, ze inor ez gaiz etxian lanerako". Izan ere, kanpoan lan egiten dute Irunatikikoek. "Ni kalia udaltzain ibiltzen naiz, beste osaba tailarrian dabil, araba kamarera moduan ibiltzen da Ikastolan tartietan, eta ama edadetua da, orduan etxian inor ez dao lan honetarako".

Gaur egunean, baserri askotan genatzen da dirua beste ogibide batetik ekarri beharra. "Asko pasatzen da hori, hemen bueltan danian, San Pedro bailarian basanitik bizi danik ez dao, danetan dao batenbat kalia lana itxen dabana. Sakrifikaia da, eta bizimodua ateratzeko biderik ez dao honekin. Horixe da basarrixan dauana, kalera jun bihar derrior".

Ondorioz, lan batzuk laga beharra izaten da. "Derrior laga in bihar poliki-poliki. Etxe buelta hau garbi eukitzeko, ganau batzuek ipini eta kitxo, hortikan aurrera gehixo ez. Dana lagatzen ez badau ere, behintzat gutxitxu in biharko dou, erdixa inguru edo".

## Behiei eusteko asmoa

Behiei eusteko asmoa badaukate behintzat. "Harexei bai, esperantzia bai behintzat. Eman ez due gauza handirik



## Antonio Arrillaga zenaren baserria

Baserri hau Antonio Arrillaga mediku ospetsuarena izan zen.

"Entzutia badakat" aitortu digu Javierrek. "Basarrixak, gehixenak, horrelakotxe jendianak zian, bakoitzak berianak bso gutxi. Gehixenak hemen, medikuana edo kanpora juten zianena edo holakotxienak zian.

Basarrixak gero hartutakuak dia danak". Sendagile ezagun honek baserriaren ustia ketaren truke errenta bat ordaintzen zuen. Lehengo errentak ordea, ez ziren diruz ordaintzen, baserriko produktuekin baizik, Javierrek gogoratzen digunez: "Lehen hori beti izaten zan. Lehen garixa edo sartzen zana, kalera eruatekua izaten zan. Zelan gosia zeuen, horregatik izango zala pentsatzen dot".

\*\*\*\*\* 4 \*\*\*\*\*

itxen baina... Irabazi gutxi. Txahala ere oin dala hamabost urte baino merkio dao. Pentsuak eta eman bihar jakozen gauzak karuau dao, eta ez dao errentabiliderik. Etxerako bakarrik eta handik ere gauza handirik ez".

Aurten bero egin du, asko luzatu da uda eta horrek eduki du eraginik. "Siku in du aurten. Sikute haundixa egon da. Oin euri pixkat in du eta zehozer jun da. Baina oin artian egon gera neguan jan bihar zian gauzak jaten, udan, agostotik hasita. Negurako arazua ekartzen dau horrek, gero negurako kanpotik ekarri in biharko dou-eta".

Elkarrizketa bukatu aurretik, bitxikeria baten berri izan dugu. Izan ere, Javierren aitona zena, 1936ko gudan, zaurituak eta hildakoak garraiatzen ibili zen. "Aitxitxa zana ibiltzen zan, gerratia zauan bitxartian. Berari entzun izan nion. San Migelera eruatzen zitxuan hildakua eta heriduta gelditzen zianak. Hori derrigortu moduan itxen zaben itxuria, militarrek aginduta. Orduan idixekin eta

gurdirakin in bihar zan, zelan kaminorik, ere ez zauan. Hemen kaminua in zala 35 bat urte edo izango dia-eta".

## 111UNAGA-TX1K1

**Ataia:** San Pedro

**7<sup>11</sup>911inak:** Josefa

Agirrebeña 70 urte; Arrate Osoro 41 urte; Javier Osoro 40 urte; J. M. Osoro 52 urte; Iñaki Onaindia 10 urte.

**Lur hedadura:** 10 hektarea.

**Esplotazioa:** 6 behi dituzte

esnerako. Horrez gain, beste 3 limousin eta idiskoa dituzte. Ortukoa etxerako hartzen dute.

# MENDIRIN mendi

## ELGOIBAR-SAN ANTOLIN-BALLEGOITXI OLAZAHARRA-URTIA

**Distantzia:** 9-10 km.

**Denhora:** ordu bat

**Zailtasuna:** txikia



*Autopistako peafera heldu aurretik ezkerretara dagoen hormigoizko pista hartuko dugu.*

Plazatik irten eta San Antolinera joango gara. Errotopara iristean, autopista aldera joko dugu. Peajera heldu aurretik, ezkerreko hormigoizko pista hartu behar dugu. Galbiderik gabe, gorantz joanez Ballegoitxira iritsiko gara (4,1 km inguru). Baserri ondotik pasatu eta gorantz jarraitzen duen mendi bidea jarraitu behar dugu (ataka bat pasatu behar da). Metro batzuk aurrerago, ezkerretara doan bidea hartuta, bide honek Olazaharra baserrira eramanez behar gaitu. Beti ere hartu dugun pista laga gabe, elkartzeko zaizkion pistei kasu egin gabe (4,6 kilometroan eskuinetik eta 4,9.ean ezkerretik) kilometro bat egin ostean, Olazaharra baserriaren ingurura iritsiko gara (5,1 Km).

■ **2** Hemen bidea bitan banatzen da. Batean, behera eginez, Olazaharra baserrira heltzen gara. Besteak, guk hartuko dugunak, zuzen aurrera jarraitzen du baserriaren gainetik. Pinadi batean barrena bidegurutze batera helduko gara. Hernen, bide batek gora egiten du, besteak aurrera eta beherantz eta hirugarrenak ezkerretara eta behera. Guk azken hau hartuko dugu.

■ **3** Bide nabarmenari jarraituz, hormigoizko pista batera iritsi behar dugu. Hormigoizko pistatik behera abiatuz, *Urtia* baserrira heldu behar gara (7,4 Km). Hemen San Migelgo bidea hartu eta Plazan bukatuko dugu ibilbidea (9,6 Km).

*7,4 Km. egin ondoren, Urtia baserrira helduko gara. Bertan San Migelko bidetik behera eginda, Elgoibarrera jaitsiko gara.*



**Informazioa:**

Imanol Barrenetxea

**Argazkia:**

'Elgoibarko baserriak' liburutik



PNV, EH eta EA alderdi abertzaleek, Elgoibarko Udala gobernatzeko akordioa sinatu zuten pasa den urriaren 28an. Gobernu Batzordea osatuz bi legegintzaldi egin ondoren, PSE-EE alderdia Gobernu Batzordetik kanpo geratu da. PSE alderdiak 8 urteotan Gobernu Batzordean egindako lanaren balorazioa jaso nahi izan dugu. Baita egoera berri honekin izan ditzakeen ondorioei buruz duten iritzia ere. Horretarako, Ovidio Campello PSOEko zinegotziarekin hitz egin dugu.

# OVIDIO Campello

## "Abertzaleen eta ez shEFI/aleu 2P1119 lanizketa eragozteko dagaidgal<sup>uff</sup>

— Zer iritzi du Elgoibar-ko PSE-EE alderdiak alderdi abertzaleek sinatu duten akordioari buruz?

PSE-EEK beti defenditu izan du Gobernu Batzordea botu kopuru handiena lortu duten alderdiek osatu behar dutela. Hori dela eta, begi onez ikusten dugu EH Gobernu Batzordean sartu izana. Baina aldi berean, eta arrazoi berdinagatik, PSE-EE ez tzateke batzordetik kanpo egon behar. Are gehiago, azken 8 urteotan Gobernu Batzordeko partaide izan eta gero. Gainera, esanenezake EAJ alderdiaren iritzia eta alkatearena, betiere azken honekin izan ditugun kontaktuen arabera, ez datozela bat. Alkatea gure alderdia batzordean onartzearen alde agertu da, baina EAJ alderdiak gu

kanpoan uzten gaituen goragoko akordioak hitzartuta ditu.

- Akordio hau zerk bulzatu duela uste duzu?

- Lizarrako akordioan oinarritutako erabakia izan da. Prentsan irakurritakoaz eta alkateak akordioari buruz jakinarazi digunaren arabera, ados jarri diren puntuak gutxi izan dira. Alderdiok elkanekin dituzten ezberdintasun sozialekin, gainera, ezin dute gauza gehiagotan ados egon. Hala ere, badakit negoziazio luzeak eta gogorak izan ditzutela herri

—Gobernu Batzordeko alderdiak abertzaleak izateak, abertzale eta ez abertzaleen arteko bereizketa ekar al dezake?

- Hori benetako arrisku bat da, baina guztioi dagokigu hori gerta ez dadin

ahalegintzea. Gure aldetik behintzat ez dugu bide hori hartuko. Herritarrek herriko gauzak konpondu eta herriak funtzionatzeko aukeratu gaituzte, eta ez goi mailako politika egiteko.

—Hauteskunde Autonomikoetan, jaso al zenuen Gobernu Batzordean parte hartzeko gonbite-rik?

EAJrekin kontaktu bat baino gehiago izan dugu. EAT eta EA alderdiek EHrekin akordiorik lortuko ez balute Gobernu Batzordean egongo ginatela uste dut. Dena den, legegintzaldia bukatu aurretik batzordean sartzeko aukerarik izan dezakegu. Momentuz, industri politika eta ingurugiro komisioak sortzeko proposamenak egin ditugu eta parte hartu dezakegun arloak direla iruditzen zait. Alkateak bi komisio horien sorrera aztertuko duela esan digu.

—Elgoibarko Udala gobernatzetik, oposiziora pasa zarete. Zein izango da zuen jarrera?

- Gure lan egiteko moduak berdina izaten jarraituko du. Oposizio eraikitzailea egiteko asmoa dugu, eta programa defendatzea da gure helburua.

—Egiguzu Gobernu Batzordean egin dituzuen 8 urteen balorazioa?

- 8 urteotan, EAJ alderdiak gure botuak kontutan izan ditu baina ez horrenbeste gure iritziak. Egungo alkateak eta bere lantaldeak inizatiba gutxi erakutsi dute. Elgoibarrek behar duenari baino gehiago momentuko egoera soziopolitikoek agintzen zuenari kasu egin diote.

### I'ESTEER ESANA

"Herriarekin eta langileekin konprometitua dagoen gizon arduratsua da. Oso ezaguna ezkertiarren artean." J.M HERRERO, PSE-EEko presidentea





**u a n**  
Karlos  
Azkarreta  
Euskal filo-  
logia ikaske-  
tak egitera  
joan zen  
Gasteizera  
21 urterekin.

3tAan K,a vlos Karrera bu-  
a t't'eta katu aurretik  
lana aurkitu

zuen eta hiria asko gustatzen zitzaienez, bertan bizitzera geratzea erabaki zuen. Gaur egun 34 urte ditu eta ia "patatero" bat gehiago moduan sentitzen dela esan digu. Mari Ulazia bere emaztearekin batera bizi da. Mariaren kasua senarraren antzerakoa da, ikasketak burutzera joan baitzen Arabako hiriburura. Biak elgoibartarrak izanik, 15 egunero bisitatzen dituztela familiakoak eta lagunak aipatu digu Juan Karlosek, "guraso eta lagunez aparte, Madarixa aldeko parajeetaz oroitzen naiz, lehen larunbatero joaten ginen-eta. Bestalde, Gasteizek aisialdirako aukera asko eskaintzen dituela esan digu, "hiri handi baten zerbitzu guztiak eskaintzen ditu, asko hanitu ninduten Gizarte Etxeak deitzen dituztenak. Etxe hauetan kiroldegia, liburutegia eta ludoteka bateraturik daude eta auzo bakoitzak berea du. Bizitza kultural handiko hiria da baina herri bat dirudi. Hala ere, asko eta azkar hasten ari da, trafikoa esaterako egunetik egunera gehitzen ari da". Euskara irakaslea izanik, bertako euskara mailari buruz galdetu diogu, "egoera asko hobetu bada ere, komertzioetan-eta zaila da jendea euskaraz hitz egiten ikustea. Taberna giroan, beniz, errazagoa da".

4111111k



31L3FICI EXPVSS

**bidai agentziak  
babestutako atala**


Foruen enparantza, 3,  
Tet 943 74 39 12

## Jose Juaristi Ansola eijo10-1979)



- 1910eko apirilaren 21ean, Elgoibarko Santa Klara kalean jaio zen. Sei anai arreba izan ziren, bera zaharrena. Gaztetako ikasketak eskola publikoetan burutu zituen. Gaztaroa futboleko eta esku pilotan lagun artean jokatzeko pasatu zuen.
- Etxea ibai ondoan zeukanez, etxeko txaluparekin hainbat arrai harrapatu zituen, ibaia arrainez beteta baizegoen garai hartan. Igerian ere ibiltzen zen.
- Lehenengo *Alcorta y Cia'* lantegian hasi zen lanean, eta gero, *Gabilondo Osoro-n*, bietan leuntzaile edo pulidore moduan.
- Sasoe hartan hainbat koadrila zeuden herrian, bakoitza bere izenarekin. Jose, 'Ezinbadalaga' koadrilakoa zen. Herriko beste koadrilen aurka futboleko aritzen ziren eta baita tirabira ugari izan ere. Hala ere, "pike" sanoak izaten ziren beti. Joxek atezain postuan jokatu zuen, eta laister hasi zen nabarmentzen. Elgoibar F.0 taldeko titularra izan zen urte mordotan. Ate azpian erakutsi zuen arintasunak ospe handia eman zion, eta oso estimatua izatera iritsi zen.
- Soldaduzka Ferroleko itsasgintzan (marinan) egin zuen. Ondoren, 1936ko gerratean Markifiako "Esperanza" lantegian egin zuen lan. 1940an *Sigma-* n hasi zen lanean, eta leuntzaileen arduradun izatera iritsi zen.
- Altxolako parrokiaren ezkondu zen, hertako Jesusa Oñederrarekin, eta hiru seme-alaba izan zituzten. Altxolan 7 urte pasa ostean, Elgoibarko Santa Ana kalera etorri ziren bizitzera. Arrantza gustuko zuen eta Sigmatik jubilatuta zenean Nafarroa aldera amurruineta joatea gogoko zuen.
- Gizon ona eta zintzoa, oso ezaguna zen herrian. Gogoko zituen lagun arteko solasaldiak. Sinismeneko zen eta famili giroa gustuko zuen.
- Futbola, esku pilota eta egunkaria irakurtzea ziren bere zaletasun nagusiak.
- 1976ko abenduaren 22an hil zen, 66 urterekin.

Juanito Gorostiza



Pedro Muguruza, 5  
Tel: 943 74 08 06  
20870 ELGOIBAR

411  
O

Urrutira deitu gabe  
bertakook segituan  
konponduko dizugu  
igogailua

11 943 20 35 15

ABERIAK 943 20 31 25

Bista Eder, 11 (sotanoa)  
• 20600 EIBAR



ste honetako erretratu zaharra *Unwre-Ona* koadrilako kide batek laga digu. Koadrilako kideek egun pasa egiten zuten urtero San Roken, eta argazki hau 1949. urtean atera zuten. "Ederki bazka]du eta merixendau ostian, txistua, tanbolina eta soinuaz alaitzen gendun girua". Umore-Ona koadrilak antolatu arren, beste herritar asko igotzen ziren San Rokera sortzen zen giro alaiak bultzatuta.

*Umnre-Onca* koadrila 30 lagun inguruk osatzen zuten, baina argazkian taldeko batzuk bakarrik ageri dira. Ikus dezagun nortzuk diren goitik eta ezkerretik hasita: **Jesus Egaña, Pedro Gabilondo, Mikel Gorostiza, Pedro Urain (t)** eta **Ramon Maiztegi**.

Makurtuta ezkerretik hasita: **Jose Zabaleta (t), Manolo Gabilondo** eta **Imanol Retolaza**.

#### **OHARRA:**

Tarte hau zuek ekarritako argazkiei esker betetzen dugu. Aurrerantzean ere, eskertuko genuke etxean gordeta dituzuen erretratu zaharrei hautsa kendu eta guregana ekarriko bazenituzte.

# it11911 Eignshic 19111M

SDP2

## Urtarrilaren 16an Euskal Ligako saio bat Eigoibarren antolatzeke asmoa dute

**A**rku tiraketa go-  
soko duten he-  
itar batzuek  
*Zarta Elgoibarko Arku-  
lari Elkartea* sortu berri  
dute. Ramon Blanco  
'Txuri' da elkarteko  
presidentea. Berak azal-  
du digu gure artean  
oraindik ezezaguna izan  
arren, gero eta indar  
gehiago hartzen ari den  
kirol honi buruzko hain-  
bat gauza.

Dagoeneko 12 kide  
ditu elkarrekin eta duela  
bi aste hartu zuten par-  
te talde moduan estrai-  
nekoz Durangoko txap-  
elketan. Taldea irekia  
da eta herritar guztientzat zabalik da-  
go. "Norbaitek arku tiraketan hasi edo  
taldeko kidea izatea nahi badu, astele-  
henero arratsaldeko 19:00etatik aurre-  
ra Ikastolan aurkituko gaitu. Izan ere,  
bertan egiten ditugu entrenamen-  
duak". Entrenatzaldea ere badute, "ha-  
si berriak garenez, Miguel Galvan ira-



*Momentuz 12 kide ditu 'Zarta Arkulari Elkartea', baina taldea nahi duen edonorentzat irekia dago. Argazkia astelehettero izaten duten entrenamenduetan aterata dago.*

kasle durangarrak erakusten dizkigu  
arku tiraketaren oinarriak". Animatzen  
diren ez dute arkurik edo beste ma-  
terialik erosi beharrik izango, "kirol  
hau gustuko duen edo ez erabaki bitar-  
tean guk utziko diogu materiala". Arku  
tiraketa indarra hartzen ari den kirola  
da, eta talde dexente sortu dira inguru-

### Arku tiraketa saioa Elgoibarren

Zartakoek Arku Tiraketako Euskal  
Ligako saio bat Elgoibarren egiteko  
asmoa dute. Eguna guztiz zehaztu ga-  
be badago ere, urtarrilaren 16an, kirol-  
degian jokatu litzateke saioa. Bes-  
talde, herriko haurrentzat ikastaro bat  
antolatzea ere pentsatu dute.

## • Eigoibarre 3 talde ari dira Eskualdeko Xake Txapelketan w parte harUen

Elgoibarrek 3 xake talde apuntatu ditu aurtengo Eskualdeko Xake Txapelketan. Liga erara jokatu da txapelketa, 4 laguneko taldetan banaturik. Bestalde, 3 kategoria desberdin daude jokalarien mailaren arabera. Dagoeneko ligaxkako 4 jardunaldi jokatu dira eta Elgoibartarrak fin dabilta. Lehen kategoriako taldeak Zarautzi 3'5 eta 0'5 irabazi zion. Bigarren kategoriako taldeak, berriz, 2'5 eta 1'5 irabazi zion Eibarko taldeari. Azkenik 3. kategoriako taldeak ez zuen zorte gehiegirik izan eta 2'5 eta 1'5 galdu zuen eibartarren aurka. Dena dela, sailkapen nagusian bigarren postuan daude 3 talde Elgoibartarrak.

## ESKOLARTEK@ KIRALAK

**AGENDA** (Azaroak 13, 5. jardunaldia)

### ARETO FUTBOLA (Mintxetan)

■ **Benjamin mutilak** •  
10:00 Herri Eskola A- Ikastola B  
10:30 Ikastola C - Mendaro B  
11:00 Plar A Mendaro A  
11:30 Pilar B- Ikastola D

E **Benjamin neskek** ■  
12:00 Herri Eskola B- Pilar A  
12:30 Ikastola A- Ikastola A

### SASKIBALOA likastdan)

■ **Alebin mutilak al**  
10:30 Pilar B Ikastola A  
11:15 Ikastola A- Herri Eskola A  
12:00 Herri Eskola B- Mendaro A  
12:45 Ikastola C - Ikastola D

E **Alebin neskek** ■  
9:00 Ikastola A - Ikastola B  
9:45 Pilar B- Ikastola C

### ESKUBALOA (Kiroldegian)

1111 **infantil mutilak** ■  
9:00 Pilar A - Arno  
9:45 Fieje - Ikastola A

E **infantil neskek** •  
10:30 Hamaikak Neskek Kilimon  
11:15 Pilar a Ikastola A  
12:00 Ikastola B- Pilar B

# MiEni a gamo Ilgullwiarrak du Mutoda 131/E Zabake IffillnIketa

Orain, Euskadiko Txapelketan hartuko du parte azaroaren 27an

Dani Arenas ehiztari elgoibartarra da Gipuzkoako Ehiza Xeheko Txapeldun berria. Txapelketa, Arabako Santa Kruz del Castillo herriko Coto el Castillo ehiza barrutian jokatu zen pasa den asteburuan. "Lur" txakurraren laguntzaz, 5 eper eta 2 faisai bota zituen Danik txapela irabazteko. Gogoratu behar dugu, Danik, Elgoibarko txapelketa irabazi zuela aurrez, Ondoren, Eskualdeko txapelketan bigarren sailkatu zen eta Gipuzkoako Txapelketan parte hartzeko txartela eskuratu zuen. David Konde elgoibartarra ere Gipuzkoako Txapelke-



Bost eper eta bi faisai bota ostean jantzi zuen Gipuzkoako Ehiza Xeheko txapela Dani Arenasek (ezkerrekoa).

tan izan zen, baina ez zuen zorte gehiegirik izan. Danik oso gustora dagoela aipatu digu, "proba amaitxu zanian ere ez naban espero nik irabaziko nabanik, eta emaitzak jakin genitxunian izugarritzko poza hartu naban. Gipuzkoako txapelketa irabaztia oso zaila da, 28 ehiztarik hartu zaben parte eta tartian Euskadiko eta Gipuzkoako txapeldunak zaozen. Euskadiko Txapelketara juteko ilusio handixa dakat oin, Arabatik, Gipuzkoatik eta Bizkaitik joandako 9 ehiztari onenak izango baitia bertan.

## Harakatera VL Igoera azaroauss 20aru izango

Aurreko bost urteotan bezala, Plaza Handian emango zaio hasiera *Urgazi Triatloi Taldeak, Morkaiko Mendizale Elkartearen* I aguntzaz antolatzen duen Karakatera Igoeraren sei garren edizioari hilaren 20an, zapa Lua irteera goizeko 10:30ean izango da. Izen emateak egunean bertan egin ahal izango dira, probaren hasiera baino ordu erdi lehenago. Iaz, Jose Mari Fernandez 'Susso' izan zen proba gogor honen irabazlea. Igoeraren marka onena ere, Fernandez el-



Jose Fernandez izan zen iazko irabazlea eta probaren errekorra ere bere esku dago.

goibartarraren esku dago duela 3 urteko igorran egindako denborari esker: (29'43'). Antolatzailleek aipatu digutenez, "aurten ere dema bortitza espero dugu aurrekoen artean eta marka berria izango dugu agian, eguraldiak zeresan handia izango du". Sariei dagokienez, hiru kategoria egongo dira: sailkapen nagusia, emakumezkoak eta helduak (50 urtetik gorakoak), Iazko lasterketan 12 Iagunek hartu zuten parte, tartean ez zen neskarik egon. Aurten ere, antzerako partaide kopurua izatea espero dute antolatzailleek.

EnkultEAK	
<b>Futbola</b>	
Bergara 1- Haundi 0(3. maila) Elgoibar 4 - Gazteak 2 (1. erreg.) Elgoibar 6 - Arrasate 2 (Kad.) Elgoibar 2- Ordizia 1 (0. inl.) Oiartzun 2- Elgoibar 2 (Jub. E.L.) Aurrera Vitoria 1 - Elgoibar 6 (Neskak) Zarautz 2- Pedrusko 1 (1. erreg.)	
<b>Eskubaloia</b>	
Pneumax Elg. 33 - Legazpi 5 (Jub. mut.) Gaur Elg. 23 • Aloña Mendi 24 (Kad. mul.) Urdaibai 14 - Pagoaga Eln. 24 (Jub. nes.) Arrasate Kir. 5- Tecnomeca Elg. 40 (Kad. mut.) Urdaibai 16 - Unceta Elg. 21 (Jub. nes.) Ermua 19 - I.M.S Elg. 16 (Senior nes.) Iraundi Bergara 22- I.M.H. Elg 22 (Senior mut.)	
<b>Pilota</b>	
Lalla/Arizmendi 20 (Lagunak) Etxebesle/Alberdi 22 (Girizia) Arrillaga/Ubera 9 (Lagunak) Fernandez/Rodriguez 22 (Goierrri) Balzola/Alzibar 16 (Lagunak) Ibarguren/ Baez 22 (Altzolatarrak)	
<b>Areto Futbola</b>	
Inter Inixaurreondo 1- Zur Ta Lur 2 (Aulon.) Idiazabal 3- Zur Ta Lur 5 (1. maila)	
<b>Idarraga Kafeak 3. saria</b>	
HAUNDIke jokalarierregularrena 99/00 JOKALARIA ..... PUNTUAK	
1- Castro .....	25
2- Aranberri .....	21
3- Zulaika .....	18
4- Pola .....	16
5- Alberdi .....	11
6- Bravo .....	9
7- Castillo .....	8
8- G. Leonardo .....	6
9- Ibarluzea .....	6
10- Txasio .....	4
11- Caro .....	4
12- Manolo Ramos, .....	4
13- Guarrotxena .....	4
14- Alcorla .....	3
15- Baque .....	3
16- Fernandez .....	2
17- Laren .....	2
18- Diaz .....	2
<b>it G' E' N D' ft</b>	
<b>Areto Futbola, ktroldecjian</b>	
Ostirala, 12 22:10 Zur Ta Lur - Gure Txokoa (1. maila) 23:10 Zur Ta Lur - traurgi Kiroiak (Aulon.)	
<b>Pilota, Ikastolan</b>	
Ostirala, 12 22:00 Elgoibar - Bergara (Naguslak)	
<b>Futbola, Mintxetan</b>	
Larunbata, 13 12:30 Elgoibar - Mutriku (Neskak) 17:00 Haundi - Lemona (3. maila) 18:45 Pedrusko - Mondragon (1. erreg.) Igandoa, 14 Elgoibar - Anaitasuna (Jub. E.L.)	
<b>Eskubaloia, Kirokiegian</b>	
Larunbata, 13 16:00 Pagoaga Elg. - Askartza (Kad nes.) 17:30 Unceta Elg. - Askartza (Jub nes.) 19:00 I.M.1-1, Elg. - BKL. CAF. (Senior mut.) Igandoa, 14 12:30 I.M.S. Elg. - Basauri. (Sonkr nes.)	

# R E7 2 L

## Zuz eneko i.ndartsua

**S**oziedad Alkoholika taldeak orain arte argitaratu duen azken lana zuzenean grabaturiko kontzertu bat da: "Soziedad Alkoholika zuzenean". Gasteiztarrek 1998an eman zituzten hiru kontzertuetako abestiak jasotzen ditu konpakto honek; Diman (1998-11-14), Valentzian (1998-12-4) eta Madrilan (1998-12-11) einan zituzten kontzertuetakoak, hain zuzen ere.

Diska hau, SA-k zuzenean eskaintzen duenaren erakusgarria da. Hasieratik amaierara, erritmo gogorak dira nagusi 21 kanta biltzen dituen grabaketa honetan. Hitzak, beraien filosofiari jarraituta, konprometituak eta salatzaileak dira, izan ere, gasteiztanak ez dira isilik gelditzen direnak eta kritikatu behar den guztia kritikatzeko dute. Horrez gain, gasteiztarren kontzertuetan izaten den giroaren berri edukiko du entzitleak diska hau entzutean. "Soziedad Alkoholika zuzenean" honetan beraien bost disketako abesti esanuratsuenak jaso dituzte. Tartean dira, "Ratas", "Los peces" edo "Shaktale" esaterako. Abesti guztiak beraienak dira, bi izan ezik: Letioren "Sorprendente" eta Fisher Z-ren "M6tx.alo!".



## InzledEI

### Edhar<sub>u</sub> Daruinhal<sub>u</sub>

Eraso eta Parasitek ere joko dute kontzertu heavy honetan

'Soziedad Alkoholika' taldeak kontzertua eskainiko du bihar larunbata, azaroak 13, Ikastolako Frontoian gaueko 22:30ean. Beraiekin batera, Eraso eta Parasite taldeak izango dira ohoka gainean Elgoibarko tabernarien elkarteak antolatutako heavy kontzertu honetan. Doinu gogorak gustuko dituenak, 1.000 pezetaren truke, galdu ezinezko zita dauka zapatu gau honetan.

**H**heavy Metal zaleak gustura lagatzeko moduko kontzertua antolatu dute oraingoan tabernariek. Gainera, ez dute nolanhiko taldea aukeratu kartelburu izateko: Soziedad Alkoholika trashcore talde gasteiztarra. 1988an sortutako talde hau, aitzindarietako izan zen trash musika egiten Euskal Herrian eta urte hauetako ibilbidearen ostean, oso arrakastatsua bihurtu da. Egia esan, sortu zenetik ezaugu du arrakasta eta beraien diskek entzule eta jan-aitzaile ugariaren babesa eduki dute.

Beraien lehenengo diskak, "Soziedad Alkoholika", taldearen izenburu berekoak berehala ezaugarazi zituen. Ondoren, "Y e.se que..." eta "Ratas" izan ziren argitaratu zituzten hurrengo diskak. Horrekin batera, "Intixikazion Etilica" maketaren berrargitarapena eta Gasteizko Gaztetxean grabatutako bideoa kaleratu zituzten. Jarraian, "Diversiones", bertsiotzat osaturiko konpak-

## Izo Itertua eskainiko Frontoian



Soziedad Alkoholika taldeak bere bost disketako abestiak joko ditu Elgoibarren.

tua eta "No intente hacer esto en su casa" etorri ziren, "Soziedad Alkoholika zuzenean" azken grabaketaren aurretik.

Arabako talde handia baino lehen, giroa berotzeko, Eraso Zarauzko taldeak eta Parasitek joko dute eta ezatuko dituzte, beraien dezibelio burrunbarekin, rockzaleen belarriak.

## Poesia alale loesieren austal poesia ellnanall- dia antolatu 'Urruzuno Literatur Taldeak

Poesia aspergarria delako topikoa hautsi nahi du hilaren 18ko saioak

**U**rruzuno Literatur Taldeak "Poesiaren alde poesiaren kontra" poesia emanaldia antolatu du ostegunean, hilaren 18an Iriondo tabernan, gaueko 22:00etan. Poesia errezitaldi honetan euskal idazle batzuek, Iban Zalduak, Gerardo Markuletak, Pili Kaltzadak, Kirmen Uribek eta Arantza Ozaetak parte hartzen dute eta denen artean poemen irakurketa batek ez daukala zertan aspergarria izan behar erakutsiko dute.

Bost idazleek eguneko poesia modernoren erakusgarria bat eskainiko dute elgoibartarren aurrean. Beraien saioa, antzepen bat bezala antolatua da eta bertan,

batzuk poesiaren alde eta beste batzuk poesiaren aurkako papera jokatzeko dute. Horrela, bakoitza bere aldean kokaturik, batzuen zein besteen poemek poesiaren eredu ezberdinak aurkeztuko dituzte. Honen guztiaren ondorioz hartzen du emanaldiak 'Poesiaren alde poesiaren aurka' izenburua.

Udako oporretako tartearen ostean, hau da Urruzuno Literatur Taldeko gasteiek antolatu duten lehenengo ekitaldia. Honenkin batera, urtea amaitu aurretik, Urruzuno-tarrek 'Hamaika Litera' literatur aldi-zikariaren beste ale bat ateratzeko asmoa daukate.

# alde s e k ntra

## Poesia emanaldia

Eguna: azaroak 18, osteguna

Tokia: IRIONDO taberna

Ordua: gaueko 22:00etan

iban zaldua  
kirmen uribe  
arantza ozaeta  
gerardo markuleta  
pili kaltzada

### ANTOLATZAILEA:



**Urruzuno Literatur Taldea**

Elgoibarko Izarra Kultur Elkarte

### BABESLEAK:



Elgoibarko Udala



Eusko Jurlarkza



# 12 ostirala

19:00 GAZTE  
ASANBLADAren BILERA  
Gaztetxean

22:30 ANTZERKIA  
Taldea: *Algara*  
Antzezlanak:  
"Un follon de testamento"  
Antolatzailea:  
*Errotatxo* Elkartea

23:00 KONTZERTUA  
*Eguzkian* punk-rock taldea  
*Oraiko* tabernan

00:00 SALSA GAUA  
Bilboko 20 bikote dantzari  
*Azkena* dantzalekuan  
(lehenago *Guass*)

# 1 larunata

12:00 GIZA KATEA eta  
KONTZENTRAZIOA  
Plaza Handian  
Antolatzailea:  
*Errotatxo* Elkartea

19:30-22:15 ZINEA  
"La Guarida"

23:00 KONTZERTUA  
Taldeak:  
*Soziedad Alkoholika*  
*Eraso* eta *Parasite*  
Ikastolako frontoian  
Antolatzailea:  
Elgoibarko tabernariak

# 14 igandea

8:30 BEHOBIA -  
DONOSTIA  
LASTERKETArako  
AUTOBUSA  
Irteera: King Kong-etik

9:00 MENDI IRTEERA  
ERLO-XOXOTEra  
Irteera: IMH-tik  
Antolatzailea: Ikastola

19:00 ZINEA  
GAZTETXEAN  
"Kannasutra"

19:30-22:15 ZINEA  
"La Guarida"

# 1 asteleena

22:15 ZINEA  
"La Guarida"

# 18 osteguna

15:00  
IKUSENTZUNEZKOA  
"Argentina bere  
osotasunean"  
Hizlaria:  
Manoli Barrenetxea  
Kultur Etxean  
Antolatzailea:  
DEBABA euskaltegia

22:00 "POESIAren  
ALDE POESIAren  
AURKA" POESIA  
EMANALDIA  
Iriondo tabernan  
Antolatzailea:  
*Urruzutio Literatur Taldea*.

# 19 ostirala

19:30 SANTA  
ZEZILIAko  
KONTZERTUA  
Herriko Antzokian  
Antolatzailea:  
I. Bereziartua Musikeskola

22:15 ZINEA  
"Eyes wide shut"

411 ~ 1

1111111111

# NE A



Zuzendaria: Jan de Bon  
Antzezleak: Liam Neeson,  
Catherine Zeta-Jones, Owen Wilson.

## The Haunting (La Guarida)

Hill House izeneko jauregian ez da inor bizi duela 100 urtetik. Horrenbeste urte eta gero, lo egiteko arazoak aztertu nahi dituen zientzilaria talde bat izango da jauregian gau bat pasatzera ausartuko den lehenengoa. Hala ere, David Marrow doktoreak oso bestelako asmoak ditu, izan ere, gizakiek izuaren eta beldunaren aurrean nola erantzuten duten ikusi nahi du. Etxeak misterio bat baino gehiago izkutatzen ditu ordea, eta zientzilariek benetako beldun'a zer den ikasiko dute.

111 111 111 111

R 111 111 111 111



• **Antzerlida eta giza katea Errotaixopen Prebentzio Astearen amaieran**

*Errotatxok* HIES-ari aurre hartzeko antolaturiko astea aurrera doa. Gaur, ostirala, hilak 12, gaueko 22:30etan, antzerki saioa izango da Herriko Antzokian. Zarauzko Algara taldeak "Un follon de testamento" antzezlanaren eskaia du. Prebentzio aste hau arnaitzeko, larunbatean, eguerdiko 13:15ean, Herriko Plazan, Elgoibarren HIES-ak jota hil direnen aldeko ekitaldia izango da. Bertan *Haritz Dantzari Taldeak* parte hartuko du eta txalaparta ere izango da entzungai. Ondoren, bildutakoek giza katea egingo dute.

• **Trikiti ikastarea Gaztetean Haritz Euskal DanUa Takleapen eskutik**



*Haritz Dantzari Taldeak* eta Gazte Asanbladak trikitixa ikastaroa antolatu dute. Ikastaroa asteazken honetan, hilaren 17an hasiko da 21:00etan eta hurrengo asteetan asteazkeno izango da. Beraz, arin-arin eta fandango dantzak ikasi nahi dituenak bertan azaltzearekin nahikoa izango du, dohaiarik izango baita.

• **'hmasutra' tmea Gaztetuan igandean hilaren 14any arratsaldeko 19:00etan**

Gazte Asanbladak asteburuetako zine emanaldiarekin segitzen du. Horetan, igande honetan, hilaren 14an, Mira Noir Indiako zine zuzendariaren 'Kamasutra' pelikula eskainiko dute Gaztetxean. Mira Noir Salaam Bombay' eta 'Mississippi Masala' pelikulen egilea da. Filme honetan bi emakuraren istorioa kontatzen da, Indian XVI. mendean girotua.



• **Eguzklan taldearen kontzertua Oralko tabernan**

Eguzkian Zarauzko punk-rock taldeak kontzertua eskainiko du gaur gauean, hilaren 12an, 23:00etan Oralko tabernan. Bestalde, taberna berean 11. 8 bolatara jokatzeko den billar txapelketa antolatu dute. Taldeak jokatu da lehiaketa hau eta parte hartu nahi duenak azaroaren 17a baino lehen eman beharko du izena eta 1.000 pezeta ordaindu.

**T X A N D A K**

**FARMAZIAK**

**Egunez Gauez**

**13** \*Eixeberria Fernandez (Errosario kalean)

**14** \*Etxeberria Fernandez (Errosario kalean)

**15** Yudego Yudego

**16** Zabaleta Zabaleta

**17** Etxeberria Etxeberria (Errosario kafean)

**18** Escala Escala

**19** Bidasolo Bidasolo \*(eguerdiko 2ak arte)

**ESCALA:** Rekaide, 1 Soraluze. Tel: 943 75 16 38

**J. IGNACIO FERNANDEZ** Herriko enparantza 4, Garagarza. Tel: 943 75 61 42

**ZABALETA:** Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 943 75 13 84

**OKINDEGIA**

**14** igandea Fotero

**OHARRA:**

Merkatu txikirako oharrak asteazken eguerdia baino lehenago ekarri behar direla gogorarazten dizuegu.

**Lana**

• **ESKAINTZA** •

• Eguediko 12:00etatik 1U:00etara tabeman lan egiteko neska behar da. *tr* 943 74 34 14

• Astehukaeretan zerbitzari bat eta sukaldelan laguntzeko pertsona hat behar da. *zr* 943 76 22 68

• **ESKAERA** •

• Erizaintzan diplomatutako neska euskalduna eskaintzen da pertsona gaixo eta edadetuak zaintzeko. Etxean edueta ospitalean. Gaez nahiz egunez. *tr* 943 74 27 78 (Itziar)

• Neska gaztea eskaintzen da erro-pa dendan edu lurrindegian lan egiteko. Esperientziarekin. *a* 696 67 78 80 (Estibaliz)

• Etxeko lanak eta garbiketarako emakumea eskaintzen da. *tr* 609 52 68 69

**Etxebizilzak**

• Pisua saltzen dut Santa Ana kalean, guztiz herritua. *tt* 943 74 05 14/626 23 75 70

• Pisu bat alukatzen da P. M. Urruzuno 8an. *ti* 943 74 12 75

• Pisu txikia behar dugu Elgoitiarren, logela bat edo bikoa. *n* 943 74 41 77 (gaeuz deitu)

• Etxe bat alukatzen da Ubitarte plazan. *a* 943 74 03 41

• Pisu txikia eta ekonomikoa behar dut alokairuan. *is* 630 21 64 22 (Jesus)

• Pisua saltzen da Santa Klaran 24 zkia -5B. *te* 943 74 32 98

• Etxebizitza behar dut Elgoibairen lehen bait lehen. *n* 943 70 11 93 (21:00etatik aurrera deitu)

**Salerosketak**

• Opel Corsa 1.2 SS-V matrikulako autoa saltzen da. Oso egoera unean. *tr* 943 74 24 06 (gaeuz)

• 5 urteko neskatoarentzat baserri-tar soinekoa erosiko nuke. *tr* 943 74 29 27

**Bestelakoak**

• Kortina, kuxim apal, maindire, oi-hal etah.ak oso gustura hartuko genituzke. *tr* 943 74 35 72 Gazte Asanblada

• Umearen pasta txurizko betaurrekoak (puntu urdin eta gorriekin) galdu ditut. Norbalteko topatu baditu 943 74 02 09 telefonora deitu tuesedez.

• Salsa, Merengue eta Cha Cha Cha ikastaroa larunbatetan Arlen, dantza irakasle kuhatarrarekin. Interesatuak deitu 630 830 222 telefonora.

• Marshall anplitikagailu hat (100W-koa), Ibariez SG/540 kitarra eta oraindik estreinatuta gabeko ahots mahai bat saltzen ditut. *tr* 943 74 40 87

• Mintxetatik kiroldegariko bide tartean Errealeko txandalaren txaketa galdu nuen duela pare bat aste (10 taila), *er* 943 74 37 94

♦ Cocker Spaniel beltza uparitzen dut ezin cludalako zainclu. 9 urte ditut, oso lasaia da, maitagarria eta oso ondo hezitua dago. *tr* 943 74 42 55

• Zilarrezko pultsera bat aurkitu nuen duela 2 hilabete. Naikari eta 98-10-30 dauka idatzita. *l* 943 74 31 41 (gaeuz deitu)

• Urrezko eraztuna (zigilu) galdu dut Santa Ana kale inguruan. *tr* 943 74 13 21

• 'In leike' Mendaroko aisialdi taldeak hurrengo altzariak hartuko lituzke: buzoia, armairua, per-txeroa, paragueroa, apalak... Gu pasatuko ginatete materiala jasotzera. Idoia 943 75 61 21

• Gazteterako sofak edo butakak behar dira. Butaka edo sofa zahar-rrak badituzu botatzeko, jarri Gazte-txekoekin kontaktuan. Eurak ardu-ratuko dira jasotzeaz. *n* 943 74 35 72

**Partikularrak**

• Dibujo Teknikoko klaseak ematen dira. *s* 943 74 73 98

• Dibujo Teknikoko klaseak emateko pertsona behar da. *tr* 943 74 07 47 (Nerea)

• Unibertsitari talde bat Mendaroko ikastolako haurrei eta ESoko ikasleei laguntza klaseak emateko prest dago. Prezio merkeak, talde murriztak eta arreta berezia. *tr* 943 75 61 70 (Alaitz) *T7943* 75 61 90 (Ziortza)

**Garajeak**

• Marradun garajea saltzen da pista beltzean. *IT* 943 74 00 89 (Astegunetan eta 21:00etatik aurrera deitu)

• Garaje itxia hartuko nuke alokairuan Anegitarren. *il* 943 74 15 16

**Agurrak**

• Zorionak Maiderrri atzo, hilaren 11n, urteak bete zituelako, Aupa Maider. Ikastolako 5. maita osoaren partez.

• Zorionak Arantxa Astiazaraneri hilaren 8an urteak hete zituelako. Salegiko taldearen partez eta bereziki umeen partez.

• Zorionak mentiaroko Jose Turadori astelehenean, hilaren 15ean, 16 urte beteko dituelako. Ondo pasa etxe-koen partez.

• Zorionak Aneri azaroaren 5ean 4 urte hete zituelako. Familia osoaren partez eta bereziki Antxoneren partez, Muxu haundi bat.

• Zorionak Anari eta Loiiri heraien urtebetetzea izan zelako. Ezetz asma-to zein izan den?

• Zorionak Joneri azaroaren 1 In 10 urte beteko dituelak, Jokinen partez.



• Zorionak Andoniri bihar, hilaren 13an, 2 urte beteko dituelako. Gurasoen eta Urtziren partez.

• Zorionak aita bihar, hilaren 13an, urteak beteko dituzulako. Familia guztiaren partez.



• Zorionak Aritz Cerezori gaur, hilaren 12an, 4 urte betetzen dituelako. Gurasoen eta anaia Enekoren partez.

• Zorionak Andoniri bihar, hilaren 13an, 2 urte beteko dituelako. Osaba-izeben, Rocioren eta Sarairen partez.



• Zorionak Ion Rogríguezi hilaren 11n 10 urte bete zituelako. Gurasoen eta arreba Eiderren partez ondo pasa eguna eta tirakada haundi hat belarririk.



• Zorionak Iftitori atzo, hilaren 11n, urtebete bete zuelako. Familia guztiaren partez eta bereziki Maialenen partez.

• Zorionak Miren Ramos-i bihar, hilaren 13an, 10 urte beteko dituelako. Gurasoen eta ahizpa Idurreren partez. Zorionak Jokinen partez ere.



• Zorionak Maialen Gallastegiri azaroaren 17an 5 urte beteko dituelako. Familia guztiaren partez.

• Zorionak Estefani Perez-i gaur, hilaren 12an, 7 urte betetzen dituelako. Gurasoen eta anai-arreben partez.



• Zorionak Victor Murciari. Que pa que pa que pasa... Zorionak berriro gelakoen partez eta baita zuk badakizunaren partez ere. Zenhat urte?

• Zorionak Iratiri, hilaren 9an, 2 urte bete zituelako. Familia osoaren partez eta bereziki Ane-ren, Aitorren eta Unairen partez.



• Zorionak Iker eta Oiatz Txurrukari igandean, hilaren 14an, 11 urte beteko dituztelako. Gurasoen eta anaia Igorren partez.

# GREMIOEN GIDA

Gremioen gida honetan azaldu nahi baduzu, deitu ! ☎ 943 74 37 04

## ARROZTEGIAK

### BIENA

Neurrira egindako tana  
Ermuaranbide, 16  
943 74 31 16

### GARCIA

Aluminioa eta PVCa  
P. Muguruza, 30  
u\* 943 74 32 38

### LODOSO

Leihoak  
Ermuaranbide, 16  
943 74 34 90

### SORALUZE

Leihoak-Armairu enpotratuak  
Santa Ana, 8  
943 74 36 34

### ULAZIA

Aroztegia eta enbalajeak  
Santa Klara, 10  
13. 943 74 05 47

### ZABALA

Etxeko erreformak-enbalajeak  
Deba kalea, 16  
943 74 03 96

### B50 LA

### GLAS CONTROL S.L.

Inpermeabilizazioak  
Olaso 27, 47. pabiloia  
.21 943 74 30 94

1[-11

## ITURGINTZA

### ANGEL

Santa Ana, 5  
943 74 17 61  
689 04 92 06

### JAVI

Erretxindi, 1  
'a 608 77 29 32

### ONGI

Urasandi, 8  
943 74 10 82

### PAGOAGA

San Antolin, 13  
'a 943 74 02 79

### TELLABIDE

Azpilgoeta, 19 MENDARO  
943 75 50 62  
1 T 607 75 50 62

### ZALDUA

Urasandi, 26  
4\* 943 74 05 30

### ZUBIZARRETA

Ubitarte, 5  
z' 943 74 07 89  
"a 608 14 30 40

Gn© 11\kflJI\_\_, ME

### JESUS M<sup>4</sup> GABILONDO

Ubitarte, 4-5 esk.  
°E 943 74 45 99

## PINTURAK

### IPINTZA

Foruen enparantza, 4  
13r 943 74 04 40  
4\* 607 74 04 40

1,1C1\_,U

### ARAMAR

Morkaiko, 1  
943 74 12 80

### AZPELETA

San Frantzisko, 51  
943 74 12 38

### BETI ARGI

Errosario, 6  
943 74 16 44

### URZELAI

Santa Ana, 12-14  
Ir 943 74 13 76

111%12 7UM

### ANTONIO MARKEZ

Urasandi, 24  
tr 943 74 34 18

### ASKETA

Osio, 7 DEBA  
1b 629 34 43 89

### JOSE LUIS MENDEZ

Urasandi, 24  
17 943 74 29 87  
n\* 689 58 47 23

### IPINTZA

Trenbide, 25  
z" 630 95 97 58-7  
Faxa: 943 74 45 97

# NISSAN PRIMERA BERRIA



**5 urteko bermearakin**



Itm. mugagabeak  
NBA Balazta bizkorrak  
Henon argiak  
ABS etxetik  
Kiimatizazioa